

Hogei urte bada zerbait

Koldo SAGASTI

Bizitzan zehar badira gure istorio pertsonala markatzen duten gertaera bereziak. Denboraren joan-etorrian jabetu ohi gara adinean aurrera goazela gure bizitzako mugarri horiek duela hogei urte-tik gora gertatu zirela ohartzen garenean. Nire ibilbide militantea baldintzatu zuen pasadizo horietako bat 2001eko uztailean jazo zen, Genovan. Orduan, munduko zortzi herrialde botere-suenetako agintarien goi-bilkura antolatu zen Italiako ipar kostaldeko hiri hartan, eta erantzunean, gizarte zibileko ehunka eragilek mundu osoko ekintzaileei dei egin zieten planetako patua jokatzen ari ziren handi-mandi horien kontra protesta egitera. Milaka pertsona mugitu zituen ekimenak helburu argi

batez: agintarien bilgunearen inguruko segurtasun esparrua, gune gorria zertotena, urratu eta bilera zapuztea. Hara iritsi ginen askok gerra testuinguru batetik sekula izan ginen gertuena aurkitu genuen Genovan. Mamu-hiriaren ikuspegia eta hura mendean hartuta zuten milaka militar, polizia eta gerra-ibilgai-luak ondorengo egunetan etorriko zen sarraskiaren iragarle izango ziren. Egoerak gainezka egin zion kontingente militarrari eta ondorengo hiru egunetako istiluetan zientoka lagun atxilotu eta beste bat hil egin zuten, Carlo Giuliani, 23 urteko ekintzaile italiarra.

Batailatxo hura azken egunotan ekarri dut berriz akordura, jakin dudanean milaka manifestari haietako bat, ni neu izan zitekeena, Italiara entregatua izate-

ko arriskuan dagoela, hamabi urteko kartzela zigorra betetzeko. Vincenzo Vecchi Genovako protestetan atxilotu zizuten ehunka ekintzaile haietako bat izan zen, epaile italiar baten ebazpenaren arabera gertakizunekiko “konplizitate moralak” zuen, manifestazioetan parte hartu izate hutsagatik, eta Mussoliniren erregimen faxistaren garaiko lege bat baliatuta “suntsiketa eta harrapakaria” delitua egotzi zioten. Gaztea, orduan, Frantziara erbesteratu zen eta orain, hogeita bat urte geroago, Italiak haren burua eskatu du, behinolako kartzela zigorra bete dezan. Bi hamarkada pasatu dira, baina askori bizitza markatu ziguten gertaera haiek oraindik ere eragiten dituzte zehar kalteak. Ez dadila izan Vincenzo horietako bat. •

Aranzadi

Asier AIESTARAN

Iragan abenduaren erdialdera arte ez nuen inoiz Aranzadi Zientzia Elkartek Donostian duen egoitza zapaldu. Are gehiago, ez nekien egoitza non zuten ere. Noski, Aranzadik egindako lanen berri banuen, baina ez nuen elkartearekin harreman zuzenik izan neure kazetaritza ibilbidean. Azken bost hilabeteotan, ordea, hiru aldiz joan naiz Zorroagagaina kaleko egoitza ra elkarrizketak egitera.

Ez naiz lerro hauetan 75 urte baino gehiagoko historia duen elkartearen

lanak goraipatzen hasiko. Aski ezaguna da hainbat eta hainbat zientzia diziplinatan egin duten ekarpen miresgarria, baita historia eta kultura ondarea kontserbatzeko egin duten lan eskerga ere, baldintzak zailak izan arren.

Baina azpimarratu nahi nuke arlo guztietako zientzialari eta ikerlariak eskuak zabalik hartu nautela joan naizen bakoitzean. Kazetari ezjakinaren galderei pazientzia handiz erantzun diete beti, hartu beharreko denbora hartuz, eta ikertzen duten gaiaren kon-

plexutasuna nabaria izan arren esfortzua egin dute beren lana egoki gizar-teratzeko.

Ziur naiz EAJ edo PSEko edozein kidek Aranzadirekin harremanetan jartzeko asmoa izan balu, erabaki bat edo beste eztabaidatzeko, elkarteak ez zukeela inolako trabarik ipiniko. Aldiz, bi alderdi horien benetako helburua EH Bildu higaratzea izan da. Horretarako Aranzadi erabiltzeak, ordea, kanpaina penagarri hori abiatu duena uzten du ipurdi bistan, eta ez alderantziz. •